

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

2016ko laugarren hiruhilekoko zaborren tasa ordaindu behar dutenen errolda

2016ko laugarren hiruhilekoko zaborren tasa ordaindu behar dutenen errolda hamabost egun baliodunez jendaurrean egongo da, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak eta oharrak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Zaborren tasaren erroldaren aurka ez bada alegaziorik aurkezten 15 egun baliodunetan, epea hasiko da ordaintzeko.

2016ko abenduaren 31tik 2017ko otsailaren 28ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuaren 2016ko laugarren hiruhilekoko ordainagiriak.

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Araudi Orokorrak, eta ehuneko bosteko erre-karguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; erre-kargu hori bateragarria da luzapen erre-karguarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2016ko azaroaren 17a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR